

"Ulertzen ote dit?"

HAURRA, irakaslea aurrean duela dago ikasgelan. Bakar-bakarrik daude biak. Irakasleak tartean behin marrazkiak egiten dizkio eta aldian-aldian hitz solteak eta esaldiak esaten dizkio haurrari. Irakasleak haurraren begi handiak ikusten ditu, berari begira, mutu. Jarraitu egiten du: marrazkiak egin, hitzak eta esaldiak esan, erantzunen baten zain. Haurra mutu. "Ai ama! Ez ote dit ezer ulertzen? Alferrik ari ote naiz?". Eta halako batean: "Non dago Anás?", "Anás hemen!". Irakasleak arnasa hartu du, ez zen hormari ari, umeak ulertu du, hasi da euskara ikasten. Gaztelania apur bat egiten duen ama marokoarrak

bi ume eskolaratu ditu. Lehenak hartu du martxa euskararekin, bigarrena, Anás, lehen urratsak ematen ari da.

Irakasleari berriak etorriko zaizkio, eta berriz ere, begi handiak eta aho mutuak ikusiko ditu. Antsiaz biziko du euskaraz lehen hitza esan arteko tartea.

Zer ote dauka buruan hiru urteko marokoarrak ezer ulertzen ez duen eskolan lurreratzen denean?

Euskalgintzaren mapa

KONTSEILUAK prestatu du mapa eta hor euskararen normalizazioa lortzeko lanean ari diren elkarte eta erakundeek ekintzak eta egituraketa bildu nahi dituzte. Elkarteen arteko

harremanak erraztea da helburua (www.euskalgintza.org/).

Ahotsak.com azkartzeko

KUTXAK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 240 mila eurora jarri dituzte ahotsak.com proiektuak abiatzeko handiagoa har dezan. Orain arte 93 herritan 1.949 hizlari elkarrizketatu dituzte eta asmoa da datozen hiru urteetan elkarrizketa gehiago eta azkarrago egitea, adinekoenak ahistzen ari baitira.

BAHEA

Iñaki Arrutik gipuzkoaeuskara.net-en esanak: "Los indígenas nos quedamos en el discurso y ustedes llevan las ideas a la práctica. Esto es una inyección de motivación para sentir que tenemos que llevar a la práctica nuestras ideas".

Masaileko bat jasotzea baino hobea da hiru maia, hiru kitxua, bi aimara, bi maputxe eta shuara batekin lau orduz hizketan jardun ondoren beraiengandik hori entzutea. Geure buruei hainbatetan esan diegu gauza gehiegi egiten ditugula eta pentsatu eta aztertu, berriz, gutxiegi. Izan liteke hori ere egia, baina kanpotik begira etorritakoari hori sentiarazteak ere zer pentsatua eman behar liguke".

Sonia Gonzalezek [Garan](#) esanak ("Euskara, munduko hizkuntzarik zailena" artikuluan): "Edo, behintzat, horrela adierazten du Ingalaterrako Kanpo Ministerioak burutu duen 'ikerketak' berriak. Antza, hainbat diplomazialariri galdetu diete... ez dakit zelako galderak egin dizkieten, nongoak diren diplomazialariok... (...)

Egiten dira munduan benetan ikerketa kuriosoak, baina ezertarako balio ez eta, areago, ikerketatzat ere jo ezin diren artean hementxe daukagu adibide ezin argiagoa. Ezin da neurtu munduko hizkuntzen artean zein den zailena edo errazena, oro har. Zailtasuna eta erraztasuna ikaslearen arabekoak dira".



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAI AN

Alakrana: beste pirateria

Erreskate ekonomikoa ordaindu eta gero, "pirata somaliarren" Alakrana euskal atun ontzia eta bere tripulatuak libre utzi dituzten gero, ordua da hainbat hausnarketa egiteko bahiketa horren inguruko beste "pirateria" batez: enpresena, mediatikoa, politikoa eta judiziala.

Inguru horretan dabilzan euskal armadoreek eta beste batzuek, ez al dituzte Somaliako eta Afrikako gune hartako kalak espoliatu eta agortzen? Zergatik hedabide handiek ez dute Somaliako benetako pobrezia-aren eta bere kalen garbiketaren berri eman, eta aldiz ustezko "eskubide Estatuak" haizatu dute justifikatzeko ezin dela "terroristekin" negoziatu, arriskuan jarriz bahitutako tripulatuak bizitza? Espainiako Gobernuak eta EAEko politikariek zergatik jarri zuten arriskuan negoziazioa eta zergatik atzeratu zuten bahituak aske uztea, bi "pirata" horiek atxilotuz, Madrilera ekarri eta "zigor eredugarria" ezarri? Ez al zuten aplikatu nahi izan "biolentziarekin eta biolentzuekin ez da negoziatzen" tesia, baina hipokresiaz azkenean, eta zorionez, justu kontrakoa egin behar izan dute? Auzitegi Nazionalako epaileek ezker abertzalearen kontrako auzietan edota Egin eta Egunkaria auziak erabakitzeko urteak "behar" izan dituzte, zergatik bizkortu dute orain sumarioa eta ari dira saiatzeko hilabeteren buruan erabakitzen?

Bahiketa honen ebidentzia bakarra da: armadoreak derrigorturik Somaliaraino lan egitera joandako Alakranako 36 tripulatuak izan direla pirata gisara jokatu ez duten bakarrak, alderantziz, hainbat "pirateria"ren biktima izan dira. Azken datua: Alakranako 36 tripulatuak ez ziren euskaldunak. Gainerakoak dira: zortzi galiziar, andaluziar bat, hamar afrikarrak eta beste hamar asiarrak. Hori da gure arrantza flotaren errealitatea!

Juan Mari Arregi